

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

151/2024 Foru Agindua, apirilaren 15ekoa. María Lourdes Miranda Lafuenteren kargu uztea, berak hala eskatuta, Mañuetako, Samaniegoko eta Eskuernagako Udalen elkarteko idazkari kontuhartzailearen bitarteko lanpostutik

Azaroaren 13ko 86/2019 Foru Aginduaren bidez, Lourdes Miranda Lafuenteri bitarteko izen-dapena egin zitzaion Mañuetako, Samaniegoko eta Eskuernagako Udalen elkarteko idazkari kontuhartzaile lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko.

Alkatetzaren 2024ko apirilaren 14ko idazkiaren bidez, elkarteak María Lourdes Miranda Lafuenteren kargu uztea eskatu zuen 2024ko apirilaren 15etik aurrerako ondorioekin, funtzionarioak berak hala eskatu zuelako.

Lehen aipatutako martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluaren aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoak izendapena errebokatzeko eskumena ere badaukate. Artikulu bereko 2. apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatzeko horiek egiten dituen organoak dagokion idatzoharra egingo duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan adierazten den erregistro integratuan.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hamahirugarren xedapen iragan-korrean agindutakoa betez, Estaturako Gaikuntza duten Toki Administrazioen Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenarekin lotuta, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoaren martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako eskumenak betez, eta horien indarrez, dagozkidan ahalmenak baliatuz, horrenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Lourdes Miranda Lafuente, berak hala eskatuta, Mañuetako, Samaniegoko eta Eskuernagako Udalen elkarteko idazkari kontuhartzaile kargutik kentzea; izan ere, bitarteko gisa betetzen zuen lanpostu hori Lurralde Orekaren foru diputatuaren azaroaren 13ko 86/2019 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Kargu uzte horrek 2024ko apirilaren 15etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Mañuetako, Samaniegoko eta Eskuernagako Udalen elkarteari eta Eusko Jaurlaritzako toki administrazioekiko harremanetarako eta administrazio erregistroetako zuzendaritzari, dagozkion ondorioak izan ditzan, bai eta berau ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Laugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 15a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria
LAURA PÉREZ BORINAGA